

## OHARRA

### Gaur Madrilgo Executive Forum-en emandako hitzaldian

**Quiroga: "Euskadin eta Espainian burutzeke gelditzen den benetako gizarte-berrikuntza benetako kontziliazio-politikak aplikatzea da"**

**Gobernuaren, enpresaburuen eta langileen artean beti adostutako irtenbideek kontzientzia eta lanaldiaren malgutasun handiagoa eskatzen dute**

**Aplikazio horrek emari handia ekarriko luke gure ahalmen ekonomikoa sustatzeko. "Ez dago gizarte bat aurreratutzat jotzerik bikote gazteek lana izatearen edo seme-alaba bat izatearen artean aukeratu behar dutenean".**

Eusko Legebiltzarreko lehendakari Arantza Quirogak Madrileko Executive Forumeko gosarian hartu du parte gaur goizean, non hitzaldi bat eman duen Euskadiko eta Espainiako aktualitate politiko eta ekonomikoaren zenbait alderdiri buruz, honako izenburu honekin: "Euskadi: mundura zabalduko leihoa".

Arantza Quirogak gure ekonomia, orain kolpatua dagoena, bizkortzeko gizarte- eta lan-ekimen berriak bilatu beharra nabarmendu du eta ekimen horietako bat azpimarratu du: lana eta familia uztartzeari premia heldu beharra.

Haren ustez, kontziliazio horri benetan heltzeak benetako gizarte-berrikuntza ekarriko luke, eta hori aplikatuz gero, ziur dago, egundoko ahalmen ekonomiko bat baliatuko litzateke, egun oraindik ezkutuan dagoena, gurean politika horien aplikazioak daraman atzerapena dela-eta.

Eusko Legebiltzarreko lehendakariak uste du beharrezkoa dela benetan apustu egitea lana-familia uztarketaren alde, zeinaren giltzarria hauxe baita: "kontziliazioa ahalbideratu duten eskema malgu berriak garatzea".

Quirogak oso datu interesgarriak azpimarratu du. "INEren arabera, Espainiako populazio ekonomikoki aktiboak 34.000 pertsona gehiago izan ditu aurtengo lehen hiruhilekoan eta gehienak emakumezkoak dira. Eta ezin onar dezakegu seme-alabak dituzten emakumeen %80k arazoak izatea beren familia eta lanbidea uztartzeko, are gutxiago kontuan izanik, diodanez, Espainiako ekonomiaren kide berri gehienek arazo hori izango dutela seme-alabarik izatea erabakiz gero."





Espainian gizon baino emakume gehiago laneratzen den arren, gure herrialdea "120. postuan dago munduan soldata-desberdintasunari dagokionez, eta 90.ean – Ugandaren atzetik- emakumearen aukera eta parte hartze ekonomikoari dagokionez. Eta zazpi postu atzera egin dugu azken lau urteotan. Gaur egun handiagoa da emakumeekiko desoreka 2007.ean baino."

Desoreka handi horren kausatzat honako hauek eman ditu Quirogak: Espainian emakumeek lan-aukera gutxiago dituzte –gure herrialdean gizonezkoen populazio aktiboaren %68,1ek egiten du lan eta emakumezkoen % 57,7k, okupazio-tasaren 16,44 puntu alegia, Europar Batasunarekiko 14 puntuko aldearekin- lan okerragoa dauka, errenta ere txikiagoa du, laneko eta familiako bizitza uztartzea zaila da eta askotan mesfidantza handia dago enpresa-munduan seme-alabak edukitzeko adinean dauden emakumeenganako. Arantza Quirogaren ustez argi dago "ez dagoela gizarte bat aurreratutzat jotzerik bikote gazteek lana izatearen edo seme-alaba bat izatearen artean aukeratu behar dutenean".

Bentako aldaketa, ziur naiz, ez da politikarengandik etorriko, gizartearen kontzientzia hartzetik baizik. Konturatu beharra dago behingoz horrek etorkizunean izango duen garrantziaz. Eta dei egin nahi diet enpresa-munduko gidariei ekimena izan dezaten. Gauzak beti amaitzen baitira hobeto ekimena benetako gizarte-eragileena denean. Ez zaio beldurrik izan behar berrikuntzari. Beharrezkoa da gizarte-berrikuntzako politika sakon bat, emakumeak dagokien lekuan jarriko dituen, gizonekiko benetako berdintasunean, ez soilik itxurazkoan.

2007ko Berdintasun Legea, "urria" eta "hateskunde-marketing-eko helburuarekin egindako formula inprobisatua" dela esan ondoren, lege horrek ustez lana eta familia uztartzeari laguntzeko neurriak ezartzen baitzituen, Quirogak adierazi du ezen "ez da Lege berri bat onartzearen zain egon behar, ez eta programa paternalistak onartzearen zain ere. Enpresaburuen eta langileen arteko elkarrizketabideak ezartzetik has daiteke, lanaldia malgutzeko metodoak bilatzeko. Oroitarazi beharra dago langile batek ez duela gehiago ekoizten lanpostuan ordu gehiago emateagatik, lan egiten duen orduetan duen dedikazio, kontzentrazio eta entregatze ahalmenarengatik baizik. Eta hori familia eta lanbidea uztartuz lortzen da."





## NOTA

En la conferencia en el Executive Fórum de Madrid ofrecida hoy

Quiroga: "la verdadera innovación social pendiente en el País Vasco y en el conjunto de España es la aplicación de políticas reales de conciliación".

Las soluciones siempre consensuadas entre Gobierno, empresarios y trabajadores, pasan por la concienciación y una mayor flexibilidad de la jornada laboral.

De su aplicación resultaría una enorme caudal para fomento de nuestro potencial económico. "no puede considerarse avanzada una sociedad cuando las parejas jóvenes se ven obligadas a elegir entre tener un empleo o tener un hijo".

La presidenta del Parlamento Vasco, Arantza Quiroga, ha participado esta mañana en el desayuno del Executive Fórum de Madrid, donde ha impartido una conferencia sobre diversos aspectos de la actualidad política y económica del País Vasco y del conjunto de España y que ha llevado por título "El País Vasco: una ventana al mundo".

Arantza Quiroga ha centrado su intervención en la necesidad de buscar nuevas iniciativas sociolaborales que dinamicen nuestra economía, ahora maltrecha por la crisis, y ha hecho hincapié en una de ellas: en la urgencia de abordar la conciliación laboral y familiar.

En su opinión acometer en serio la mencionada conciliación supondría una verdadera innovación social, y de su aplicación, está segura, se aprovecharía un enorme potencial económico hoy todavía oculto por el retraso que acumula en nuestro la aplicación de dichas políticas.

La presidenta de la Cámara vasca considera necesario apostar de verdad por la conciliación trabajo-familia cuya clave pasa "por desarrollar nuevos esquemas flexibles que permitan la conciliación".

Quiroga ha destacado un dato de mucho interés. "Según el INE, la población económicamente activa de España creció hasta el primer trimestre de este año en 34.000 personas, casi todos estos actores económicos son mujeres. Y no podemos permitir que el 80% de las mujeres con hijos tengan problemas para conciliar su familia y su profesión, máxime cuando, como digo, casi todas las nuevas integrantes de la economía española tendrán ese problema si deciden tener hijos."





A pesar de que en España la mujer se incorpora más que el hombre al trabajo, nuestro país “ocupa la posición 120 del mundo en desigualdad salarial, y el 90 -detrás de Uganda- en cuanto a oportunidades y participación económica de la mujer. Y hemos retrocedido siete puestos en los últimos cuatro años. Hoy en España se es menos equitativa con las mujeres de lo que era en 2007.”

Como causas de tamaño desajuste, Quiroga ha esgrimido el que la mujer en España tiene menos posibilidades de trabajo -en nuestro país trabaja el 68,1% de la población activa masculina y el 51,7% de la femenina, lo que equivale a 16,44 puntos en la tasa de ocupación, a 14 puntos de diferencia de la Unión Europea- a que tiene peor empleo, que su renta es también menor; la conciliación de la vida laboral con la familiar es difícil y a que existe en bastantes casos una fuerte desconfianza en el ámbito empresarial hacia la mujer casada en edad fértil. A juicio de Arantza Quiroga resulta evidente que “no puede considerarse avanzada una sociedad cuando las parejas jóvenes se ven obligadas a elegir entre tener un empleo o tener un hijo”.

El verdadero cambio, estoy segura, no vendrá de los políticos, sino de una concienciación social. Hay que percatarse por fin de la importancia que este hecho tendrá en el futuro. Y aquí quiero emplazar a los líderes empresariales a tomar la iniciativa. Porque las cosas siempre terminan mejor cuando la iniciativa proviene de los auténticos actores sociales. Hay que perderle el miedo a innovar. Es necesaria una intensa política de innovación social que sitúe a la mujer en el lugar que le corresponde, en igualdad real con el hombre, no sólo formal.

Tras calificar de “insuficiente” y “fórmula improvisada con afán de márketing electoral” la Ley de Igualdad de 2007 que, supuestamente, establecía medidas de apoyo a la conciliación de trabajo y familia, Quiroga ha señalado que “no hace falta esperar a aprobar una nueva Ley, ni a la aprobación de programas paternalistas. Se puede comenzar por establecer vías de diálogo entre empresarios y trabajadores, para explorar métodos de flexibilización de la jornada laboral. Aquí hay que recordar que un trabajador no produce más por estar más horas en el puesto de trabajo, sino por su capacidad de dedicación, concentración y entrega durante las horas que trabaja. Y eso se logra conciliando la familia con la profesión.”

